

Osoko bilkura

Gasteizen, Goiuri jauregian

2015eko otsailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,

zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Xarles Videgaini (10:00-12:30); Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari (11:30-14:30); Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdai ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Gasteizen, Goiuri jauregiko Pedro Lopez de Ochandiano gelan hasi da, goizeko 10:10ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren otsaileko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko programa azaldu du. Goizean bete behar diren egitekoak kontuan harturik, Oso-

ko batzarreko aztergaiak hamabiak laurden gutxiagotan etengo dira. Ondoren, hamabietan, Martin de Salinas gelan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* seigarren tomoaren aurkezpena egingo da. Horretarako, euskaltzainak aurkezpen-aretora joango dira, eta behin ekitaldi hori amaitu eta gero, berriz ere lehengo aretora itzuliko dira, batzarrari segida emateko.

1. Osoko bilkurarako (2015-01-30) bilera agiria onartzea hala erabakiko balitz

2. orrialdeko 3.1. aztergaiko lehenbiziko paragrafoko lehenbiziko sei lerroak beste hauengatik ordeztzea proposatu du Andres Iñigo euskaltzainak:

«M. Zalbide *alde anitzeko* hitzaz mintzatu da eta M. Azkaratek ere horren alde egin du. A. Iñigok proposatutako *aspertsio* hitza dela eta, Tx. Peillenek *ihinztatze* forma nahiago duela adierazi du. A. Iñigok eta A. Sagarnak, aldiz, *aspertsio*-ren alde egin dute, *h. ihinztatze* gehitu gabe eta horrela onartu da. P. Uribarren *artotza* eta *arto-saila* hitzen arteko ezberdintasunez mintzatu da. *Alde anitzeko* onartu da, eta *alde egon* ere bai». Oharra onartu da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, bestelako oharrik egin ez denez, 2015eko urtarrilaren 30eko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika

2.1. **Ekialdeko antzinateko herriak: *filistear* / *filistiar*.** Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria batzar-aretora sartu eta bertan bildutakoak agurtu ondoren, Onomastika gaiak azaltzen hasi da. Aurreko bileratik erabakitzeke gelditu zen *filistear* / *filistiar* hitzen arteko zalantza azaldu du. Izan ere, Ekialde Hurbileko Antzinateko herrien zerrendan, *filistiar/filistear* bikotea aurkeztu zitzaion Osoko bilkurari bi formen artean erabakitzeko. Euskaltzaindiak, Donostian, 2011ko urriaren 28an eginiko Osoko bilkuran, *Filistia* forma onartu zuen, eta, hartatik, *filistiar* forma eratortzen da. Hala ere, *Elizen arteko Biblian filistear* aldaera agertzen denez, salbuespena egin behar ote den galdetu zion Exonomastika batzordeak Osoko bilkurari. Erabaki gabe gelditu zenez, Exonomastika batzordeak bere proposamena zehaztu du: *filistiar* proposatu du, *Filistia* arautuarekin bat etorrazteko, kontraesanik ez izateko eta Europako hizkuntza gehienek bidetik jotzeko. Euskaltzainek hala onartu dute.

2.2. «Europako Antzinateko herriak: herri barbaroak». **Aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz.** Exonomastika batzordeak Andres Iñigo euskaltzainak eginiko oharra, bai eta aurreko Osoko bilkuran izaniko

eztabaida kontuan hartuz, aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko araugaiari oharrak egin dizkio. Horiek horrela, Andres Iñigok arauaren aurkezpenerako proposatutako zehaztapena onartzeaz batera, onarturiko herrien zerrendan *langobardo*, *latino*, *liguriar*, *asturiar* eta *bendo* izenen ondoan, baliokide moduan, *lombardiar*, *latindar* (*Euskaltzaindiaren Hiztegian* jada onartua), *ligur*, *astur* eta *wendo* formak ere eranstea proposatzen du, horien erabilera ezberdina eta esangura-ñabardurak kontuan izanda, erromatarren garaiko herri horien izen etnikoa eta gaur bertan bizi diren herrien egoera ez baita berdina. Bukaerari dagokionez, uste du, gainera, *ligur* eta *astur* hitzen kasuan oin-ohar bat jartzea komeniko litzatekeela hitz berezi horiek deklinatzean azken *-r* hori biguna dutela azaltzeko (*asturak*, *ligurak* eta abar. *Asturias* eta *Liguria* bezala). A. Sagarnak forma horien deklinatze-berezitasuna *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* azaldu beharko duela esan du.

P. Goenagak eta M. Zalbidetik ez dituzte kultismo horiek begi onez ikusten. Tx. Peillenek, *latino* / *latindar* bikoteaz mintzatzean, horrelako bereizketak hizkuntza guztietan egiten direla gogorarazi du, eta sinonimo bakoitzak esangura berezi bana izaten duela, *erromatar* eta *erromaniko*, adibideak emanez. B. Atxaga aspaldion inolako jatorriaren ez duten hitz eta esaera batzuen aurka mintzatu da, *juntadizoa* edota batzuen artean aspaldian modan jarri den *eguerdi on*, adibidez. A. Arejitak ere lokalismo hertsien kontra hitz egin du. P. Uribarrenek proposamenean gauzak ondo azaldu beharko direla esan du, bere kasuan bereizketak egiteko aukera garbi utzirik.

Eztabaidaren ondoren, *lombardiar*, *latino* eta *wendo* formak eranstea eta *liguriar* eta *asturiar* kentzea erabaki da. *Astur* eta *ligur* gehitzearen inguruan adostasunik egon ez denez, euskaltzainek gaia botoetara eramatea erabaki dute, emaitza ondorengo hau izanik: 13 gehitzearen alde, 6 kontra eta zuri bat.

2.3. Jatorri germanikoa duten pertsona-izenen grafia, aurkeztu. A. Mujikak jatorri germanikoa duten antzinako pertsonaia historiko batzuen zerrenda aurkeztu du, grafiaren arabera izen horiek taldeka eskaini eta ereduak emanez. Horietan, orain arte latindar eta greziar jatorriko izenekin onartu zen irizpide bera erabili du batzordeak. *-f*, *-t*, *-d*, *-k* bukaerakoei *-o* erantsiz (*Alariko*, *Teodoriko*, *Leonardo*, *Gerardo*, *Turismundo*, *Bohemundo*, *Rekaredo*, *Godofredo*, *Atanagildo*, *Rezesvinto*, *Kindasvinto*, *Ataulfo* eta *Bernardo*). Salbuespentzat, gure artean erabilera urria dutelako, eskandinaviar izenak utzi dira, inguruko hizkuntzetan egiten denez: *Erik*, adibidez.

Izenaren *kh* hasperenduna adierazteko, latinez *ch*-z idazten ziren izen germaniarrei dagokienez, grezieratikoekin bezala jokatu da (*Achiles* > *Akiles*, *Archimedes* >

Arkimedes, Plutarchus > Plutarko...), eta horrela erdal grafiako *Chindasvinto, Childebarto edo Chintila* euskaraz *Kindasvinto, Kildebarto* edo *Kintila* gisa letraldatu dira, jatorrizko fonemari ahalik eta gehien hurbiltzeko, alemanek, italiarrek edota katalanek hobetsi duten bideari segituz. Gogoan izan behar da, *ch*-dun izen hauek oso gutxi direla, eta jatorrizko izenaren iturburuko *kh*-rako, hain euskarazko eta markatua den *tx* grafia erabiltzea, haien jatorrizko fonetikatik erabat urruntzeaz gainera, izenoi halako euskal janzkera faltsua eskainiko litzaiekeela.

Segismundo, Chindasvinto edo *Humberto* moduko izenak erdaratik jaso ditugula gogoratu du M. Zalbidek eta bere ustez ez ginatkeela horietatik gehiegi urrundu behar. Tx. Peillenek euskaldunon artean tradizio ezberdinak izan direla gogoratu du, izen horiek sarritan ez baitira berdin irakasten Iparraldeko eta Hegoaldeko ikastegietan. X. Kintanak esan du, gure testuinguru kulturala ahanzi gabe ere, ez zaiola bidezko iruditzen, Euskaltzaindiak honelako gauzetan umil-umilki «Erdaltzaindiaren» esanen meneko otzan agertzea, eta are gutxiago, erdal erabakiak euskararen nortasunerako gaizki helduak direnean. Bera erdal neokolonialismoaren kontra dagoela esan du.

A. Mujikak gogorarazi du Goi Erdi Aroko pertsonaiez ari garela, ez oraingoz (*Adolf Hitler*) eta Exonomastika batzordeak orain arteko irizpideari segitu diola. A. Sagarnak esan du egoki litzatekeela erabilera historikoarekiko kontrakarrean ez aritzea. B. Atxagaren ustez izena irudia da eta gordetzea komeni da. M. Azkaratek orain artekoari eustearen alde agertu da.

Ohar idatziak egiteko azken epea martxoaren 23an amaituko da.

3. *Hiztegi Batua*. Zerrenda osagarriak (famiaren inguruko saila. Izen propioetatik eratorriak eta -(t)ar osaerakoak), aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz

Miriam Urkiak aurreko Osoko bilkuran banaturiko «*Hiztegi Batua 2*. itzulua: familia loturak» izenburua eta 10 orrialde dituen dokumentua baliatu du. Idatzi honetan, ohargilea, aztergaiko sarrera, proposamena, arrazoiak eta *Hiztegi Batua* lantaldearen iritzia ageri dira. Halaber, familia loturei buruz informazio gehigarria ere banatu da. Gaurkoan, lehenbiziko bost orrialdeak aztertu dira.

Ohargileei beren iritzia eskertu dizkie, eta ondoren horiek komentatu ditu, famiaren inguruko senide-lotura eta abarrik garrantzitsuenak azpimarratuz. Bilduriko izen batzuk semantika hutsetik harago doazela aipatu da, mundu afektiboa ukitzen dutelako eta. Jasoriko oharrekin, senideen eskema logiko eta koadro sime-trikoak antolatzen ahaleginu dira.

Kontu berezia agertu da egitura lexikal batzuk ezarri edota onartzeko orduan, hizkuntzaren edo hiztunen jokabidea ez baitator beti bat logika abstraktuarekin. Hortaz, A. Arejitak esan du, *aita-ama ponteko* moduko egiturak ez direla, besterik gabe, hiztegi-jartzeak. Horri erantzunez, A. Sagarnak esan du gramatikaren eta erabileraren arteko muga ez dela erraz bereizten, ofizialtasuna eta erabilera sendotu arte bederen.

Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamen gehienak onartu dira. *Atautxi* hitza sartu ala ez eztabaida egon da. Adostasunik egon ez denez, azkenean botoetara eraman da. Hamahiru boto jaso dira sartzearen alde, hiru sartzearen kontra eta beste bost zuri.

Anaikide hitza dela eta, Andoni Sagarnak kontsultatu ahal izan duenez, *anaidia* erabilia izan dela adierazi du. Ondorioz, *anaidia-ri Zah.* marka gehitzea onartu da. Halaber, *birraitita-n Biz.* marka mantendu ala ez erabaki ahal izateko, datuak ekarriko ditu Hiztegi Batuko lantaldeak.

Denbora faltaz, gaurkoan aztertzeko utzirikoak, bai eta dokumentuaren seigarren orrialdetik hamargarrenerako tarteetakoak ere, hurrengo Osoko bilkurarako uztea erabaki da.

4. Euskaltzain urgazle berriak izendatzeko irizpideak finkatzea, aurkezpena

Honi buruz bi txosten aurkeztu eta banatu dira paperean, biak Zuzendaritzak begi onez ikusiak. Lehena, P. Uribarrenek prestatua, berak irakurri du. Horretan euskaltzain urgazle berriak izendatzeko baldintzak aztertu ditu, irtenbideak ere aipatuz, Arabako egoerari bereziki behatuz. Ondoren, beste txosten bat aurkeztu du idazkariordeak. Horretan, azken hogeita bost urteotako datuak eskaini ditu, euskaltzain urgazleen jatorria eta hautatze-datak emanez.

B. Atxagak Euskaltzaindiaren aurkako joerak nabaritu dituela esan du, eta hor bazuetan presio-taldeak agertzen direla, euskaltzainen artean generoa behar bezala ez dela kontuan hartzen argudiatuz. X. Videgainek, aldiz, Ipar Euskal Herrian ageri den adin problema azpimarratu du, eta kezkatu dagoela oraingo euskaltzainen ordezkapenez. Ongi dago, bere ustez, orain artekoen lana goraiatu eta saritzea, baina Euskaltzaindiaren iraupenerako, premiazoena etorkizunerako langileak erakartzea da. A. Arkotxak uste du Ipar Euskal Herrian askok ez dutela Euskaltzaindia ikusten, aspaldian zokoratua da eta. Batzuk Euskaltzaindira erakarri beharraz ere mintzatu da.

Euskaltzain urgazleak izendatzeko, prozesuari ekin aurretik, irizpideei buruzko oharra egitea eskatu zaie euskaltzainei, horretarako epea ere jarritz, martxoaren 23a, astelehena.

5. Eskuarztekoak

5.1. 2015. urteko Euskadi literatura Sariak, euskarazko literatura itzulpena, Euskaltzaindiak izendatu beharreko epaimahaikidea. Paskual Rekalde euskaltzain urgazlea eta itzultzailea izatea proposatu du Zuzendaritzak, 2015eko otsailaren 24an eginiko bilkuran. Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.2. Gaur banatuko den liburua. Gaur aurkezturiko *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VI.* tomoa banatuko zaie hala eskatu duten euskaltzainei.

5.3. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetzea. Martxoaren 3an, asteartean, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan erakunde bion arteko urteko lankidetzaren hitzarmena izenpetuko da. Egun berean, Blanca Urgellek paraturiko Axularren *Gero-ren* edizio kritikoa ere aurkeztuko da.

5.4. Hurrengo bilkurak. 2014ko azaroaren 29an Markina-Xemeinen erabakitako egutegia kontuan hartuz, EAE / RSBAP erakundearen 250. urteurrena dela eta, hurrengo Osoko eta Ageriko bilkurak Azkoitian egingo dira, Intsausti jauregian. Argibideak aurrerago emango dira.

6. Azken ordukoak

Mikel Zalbide euskaltzainak jakinarazi duenez, Euskararen Historia Soziala egitasmoan diharduen Nick Gardner-en aita hil da. Horiek horrela, Euskaltzaindikoko lankideari, bai eta haren senideei ere doluminak adieraztea erabaki da.

Eta besterik ez dela, 14:15 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria